

P. LAFITTE EUSKAL OLERKARI

Aita ONAINDIA

Asko ez dalarik, -1982-V-27 an-, omenaldi biozkor bat, aurrerago ospatu bear zana ziurrik, egin zan Leioa-ko Euskal Ikastetxe Nagusian, lau gizaseme buru-jantzi ta jakituri aundiko goratu ta balio bikaiñekotzat munduaren aurrean miretsi azoaz. Napartar bi, Jose Mari Lakarra ta Manuel Iruxo, ta ustarihtar bi Eugene Goienetxe ta Pierre Lafitte genduzan gizaseme gurenok.

Laurok, an esan zanez, «aurreragoko euskal berbizkundera bizi-azo ta indartu eben irudi geraiak ixetu eben zuziari eutsi eutsonen belaunaldikoak». Laurok izan genduzan egun orretan, zor zana ordainduz, Leioa-ko Ikasguan «honoris causa»-ko Doktor edo Maisu tituluz orniduak. Karlos Garaikoetxea Lendakariak ederto: «Zuok erakutsi dauskuzue bidea eta eskerka urturik gagoz».

Bizitz-atalak.—Besteak beste, gu P. Lafitte kalonjeari gagokioz. Labur bederen, aril dagigun zertxobait ari buruz. Lapurdi-n jaiot zan, Luhosoa erritxoan 1901-V-21 an. Leen-ikaskizunak Itorrotz, Beloke ta Baiona-ko seminarioan osatu ondoren, bertako katedralean artu eban apaizgoa 1924-VII-13 an. Geroago be, urte bitan beintzat, Tolosa-ko Ikasguan jarraitu eban ikasten. Ementxe euskal-zaletu be egin yakun, antza; Leioa-n maisu-titulua artu ebanean beintzat, onela eskertzen ditu ango irakasle ta besteak. «Gogoan dut -diño- oroz lehen Mgr. Saint-Pierre, euskararen ikasterat bildu ninduen. Ez zaizkit ahanzten ere Tolosako hizkuntzalari unibersitarioak, Anglade, Magnin, Dufréchou. Are gutiago ene sustatzale Lacombe, Gavel, Dassance euskalzaleak, eta liburukintzan lankide suhar ukan ditudan Aranart, Lassalle, Tournier, Etchamendy, eta nola ez aipa kazetagitntzan lauzkatu nauten hainbertze idazle eta berrikerari?» (*Herria*, 1982-ko ekainaren 10-koa).

Ustarihtar-ko seminario txikian irakasle izentatu eben 1926 an; arrezkero guztian, ortxe, zintzo ta errime, ekin dautso bere irakas-lanari. Letretan lizenziatu zan 1928 an. Euskal arloan lazkatua, ementxe sortu ta zuzendu

euskun «Antzina» illerokoa, 1934 tik 1937 rarte. 1944 an munduko bigarren gudu-goraberak amaitu ziranean, «Herria» asterokoa erne-azo eban, 1967 raño zuzendu be berak egindakoa. 1953 tik euskaltzain osoa dogu, eta 1961 tik Baiona-ko katedralean deduzko kalonje.

Nik, neure «Euskal Literatura»-n (V), gizaseme erne onen bizitz-barri emotea osotzean, onela idatzi neban: «Ementxe daukagu –Ustaritze-n noski-gaur ere, liburu zar eta berriz, bertso-paper zar eta berriz inguraturik, euskal lanari gogoz ekiñaz. Eragille ere izan da. Ezta errez zenbatzea egiñak ditun ainbat eta ainbat mintzaldi; eta eguneroko, asteroko ta agerkarietan azaldu dizkigun lanak, argitara dituen liburuak, idatzi ditun artikuluak ... Bizitza osoa, nunbait, euskera ta euskaldunaren zerbitzuan».

Nire lana.—Euskaltzaindiak laster eskiñiko dautson omenaldirako eskatu dausten lan kaxkar onek, zati bi izango ditu: Lenengo, P. Lafitte *kopla-legelari* eta bigarren, P. Lafitte *euskal olerkari*. Aspaldidanik daukadaz esku artean bere liburuxka bi, berak gaztetan argitara emonak, gitxi ezagutzen ditunak: «Koblakarien Legea» eta «Ithurralden kantuak», biak, bigarrena 1932 an eta lenengoa 1935 an Baiona-n argitaratuak. Liburu biok aztertuko ditut, naiz-ta azal samarretik, geiegi luzatu bage.

P. Lafitte ez da egundo be nagiarri emona bizi izan, euskal alorrean berariz. Asko idatzi dau euskal literaturan. Orrez gaiñ ez dau gitxi argitaratu, zar eta barri, –«Herria»-n batez be– euskal olerteriari buruz. Baiña, nik dakidanez, olerkiz gaztetako liburu bat emon dausku bakar-bakarrik.

Olerkari ta bertsolarietikiko lanak, ostera, aztertu ta argitara emon askotxo egin dauskuz. Ona batzuk: 1) *Eskualdunen Loretegia*, 1931, 133 orrialde; 2) *Ithurralden kantuak*, 1932, 64 orrialde; 3) *koblakarien legea*, 1935, Baiona-ko «Gure Herria»n aurretik emondako lanaren separata; 4) *Bernardo Gazteluzar olerkaria*, 1974, «Gure Herria»-n; 5) M. le chanoine Gratien Adéma (1828 - 1907). M. l'abbé Jean Barbier (1875 - 1931), Baiona-ko Apaiztegia emondako itzaldia; 6) *Kantuz*, kanta sail ederra; 7) *Poèmes basques de Salvat Monho*, 200 orrialde, 51 poema, itzuli ta oarrez orniduta. «Gure Herria»-n baditu oraindiño beste lan oneik be: «Un inédit d'Arnaud d'Oyhénart: L'Art poétique basque», 1967; «Copiage bio-bibliographique autour de poète Jean d'Etcheverry», 1968; «Salvar Monho, poète basque», 1970, eta abar.

P. Lafittek, beraz, beti nabari izan dau bere baitan euskal olerki ta olerkarien urduri-kezka.

Gizonaren eder-griña.—Ederrak beti kezkarazi dau gizona. Baita edesti-aurretik be. Zer adierazo nai dausku arte-lan batek? Giza-gogoa ta sentikortasunaren zelanbaiteko artezpena. Au ostera beti da, gitxi-asko, ederrari buruzko jarduna. Leenengo gizaseme «jakintsu» arek be ba-eban arako zentzuna, sen berezia, kolore ta mukuluz abere larrantzak margoztean, adibidez; eta margolari arein elburua, leenik beintzat onurakorra izanik be,

ederraren esan-naia zelan edo alan adierazo ta argitzea izan zala, esan daikegu; zurean aurrenik, arri landu-gabean gero ta metalean geroago, ots, bearrezko zituan lanabesetan; zurean, arrian, azurrean, eizarako naiz arrantzurako bear zituan tresnetan bere eder-senaren apurrak itxi ebazan leen-gizonak.

Eta zuek jarkiko: tramankulu orreik ez dira arte-lan. Ez eta bai. Egillea, dalakoa dala dagian lana, alik edertoen osatzen alegintzen yaku: are bat, aitzur bat, arpoi bat, eizarako naiz jolaserako izkillu bat; ikus, esaterako, Eibar-ko Sarasketa-ren eskopeta bat. Olako asko ez al dituzu guztiz antzetsu egiñak? Tresna orreik, berez praktikotasunera zuzenduak izanda be, or ez dagoela arterik, estetika-rik esango ba'gendu, ez genduke egia osorik autortuko. Gai orreitan gizonak interesa baiño zerbait geiago dana jarten dauala esatea ez da pellokeria bat botatea. Or bada, bai, gizonak bere eder-griñatik ipiñitako zerbait.

Leenerako ta oraingorako, baliotsu dozu au. Leenerako, begira: gure artzuloetan -Santimamiñe-n adibidez- margo- marrazkiak sinbolu lanak dira geienbat, lerro ta itzal bitartez zer-edo-zer esan nai dabenak. Bertsolariak gaur be olako zerbait ez ete daukue egiten? Irudimen azkar ibilkorrez sinboluak sortzen dabez, gauza zeatz bat aitzen emon naiez. Gauzakiak diran bezelatsu ezin ikusi dabezala, esan daikegu. Gaur berton ez ete dabiltz, olerkariok atan be, olako zerbaiten billa? Sinbolu bidez, ezkutu dagoan zerbait adierazo nai izaten dogu geure sorpen-lanetan. Lojika aurreko pentsaera ei da.

Grezia-ra egazkada bat ba'dagigu, an daukaguz leenengo poetak, mundua eta onek ditun edertasunak abestu euskuezanak. Areik erabilli eben lenengoz «eder» -*kalós*- itza. Gunez zer zan ez ekien arren, emakumeari ezarten eutsoen berezikien. Eder-mota oneik, alan be, atsegin yakezan: kanpo aldetik, kolore, itxura, nabardura, lits eta adierazpena; onoimena, birtutea, oiturazko edertasuna ta abar, barne aldetik. Ederrak dira Musak, naiz-ta billosik egon: aize edo ganduak, au da, lotsak estaltzen dautse euren gorputz liraiña. Emakumeen eta itxasoaren doaia zan asieran ederra; gero baiña abere, arnari, izkillu, uri ta burdietetara edatu zan. Au da: ludian aurkitzen diran eta gizonak bere trebetasunez osatutako gauzak, begientzat betegarri ziranak nunbait, «ederrak» genduzan.

Jakingarri yaku ontaz gerkarren pentsaera. Areintzat iru itzok, eder, on eta obari, iru itz ezbardin ziran. Ona ta onurakorra bardin dira Homorentzat; eta ez dago lokarrik ederraren eta onuraren artean, onurakor baldin bada. Gauza onurakor batzuk ba-dira eder diranak, baita gauza eder batzuk be onurakor diranak. Edozein gauzaki era berean onurakor dogu, baiña ez itzulietara, gauza bat ez da eder onurakor dalako soil-soilki: lur sotilak ez dira eder azia edo ongarrria bota yakelako, uztak damoskun margo-koloreagaitik baiño.

Litsak, matizak, ezagutzen ditu Homerok eta osora eta ederrera zuzentzen dau adimen-orratza; osoaren, ederraren, oiturazko onaren eta onurakorraren artean ba-da zer-edo-zer bardintsu ez dana; litsak, ba, dakaz gogora. Moral-soloan aurkitzen da zerbait ederrari urreratzen yakona: eder da kaia, ziurtasuna eskintzen dauskulako; eder da ipar-aizea, erabat, lau ta gozo putz dagianean, itxas-gaiñez ontziari ibai zear bezela txokol egiten lagun dagionean.

Gure koplarien urduritasuna.—Euskal koplariak, eta bertsolariak batez be, asmamen edo jeinu berezikoak diranik ezin daiteke ukatu. Umetatik dakargun kemen apartekoa da asmamen-indarra. Aurraren pareko ei da jeinua, lau ta sentikor. Eta Schopenhauer-ek onela idazten dau: «Jeinuak dagi aurragan berezko sentikor-bidea baita adimen-jokoa be; jeinuak orixe daroa bizitza guztian, gaztetatik jarraikoa egiñik». Gizaseme buru-argi ta idazle azkarraren lanak, lauak eta laiñoak dira, ulerterrez, jakingarri ta ederrez apainduak.

Doixtar filosofu ezkor onek beronek, jeinuaren eta zoramenaren artean, alako aidetasuna jarten dau. Nun agertzen batez be zoramena? Gomutamena-
ren egokitasunik ezean. Eroak ez dau joanari buruz ezaguera illun bat besterik, baiña oraiñaren ezaguera zeatza dau. Egipenaren arteko lokarri ta artu-emonak, baiña, ez ditu ezagutzen: auxe da bere aiko-maiko ta zear-mearka ibiltearen zioa. Emendik dator baita jeinu aundiko gizon asmatzaillekaz iku-gune izatea be. Eta une orretan errazoiari agur-egiñik bizi dala dirudi, bear-bearrezko gauzakaz aztuta.

Gai onetaz ber-esan dagigun leenago «Gure Bertsolariak» liburua idaztean, M. Lekuonak bere idazti eder aozko euskal literaturari buruzkoan oiñarriturik, adierazo nebana. «Egazean auturiko bertso-sail bat irakurtean—niñoan—, olango batasunik eza somatzen da bertatik, bertso ta ahapaldien aria eten antzeko zerbait lez dardar dagoala. Egiari berea emonik, erri-literaturak ez dautso iñoiz jaramon aundirik egin oneri; gure bertsolariak be eztabe ezertan artu. Gogoan izan daigun au: batasuna lortzeko, erea bear da lekuarena, esaerena, gogaiena, iduriperarena, biotz-zirrarena; eta onek uts-emon ba dagigu, guk greko-latiñaren esparruan azi ta ikasiok beintzat, dana naspiltsu ta azpikoz gora dagoala uste dogu. Egiz orrela ete? Euskaldunon jokabidea bestera baita.»

Lekuonak gero, bertsolarien bide-okertze au dala-ta, Errenderi-ko Joxe Zapirain koplariak bere emaztearen eriotzan jarritako bertsoetako bigarren ahapaldia dakar erakusburutzat:

*«Nere sentimentuak biar ditut esan:
— Suerte txarrerako mundu ontan izan—
Gripek arrapatuta emaztia il zan,
— Errezatutzen diyot al dedana elizan—;
Bederatzi semekin alargundu nintzan».*

Begira nola dabillen bertsolariaren irudimena. Lau-bost gogai daukaguz emen, deslai samar itxura baten. Bere atsekabea lenengo lerroan, barne-miña, emaztearen eriotza, errezatzea, seme-alaben umezurtzetasuna aita alar-gunaren ondoan, azkenik. Au poemaren sarrera besterik ez dozu, irakurle, eta emen ozta-oztan aitzen emon baiño egiten ez dauana, kantu osoaren barruan alderantziz doakez bata besteari jarrai: umezurtzen soiltasuna leenen eta eriotza gero.

Ez arritu, alan be; ele ederretan nun-nai aurkitzen dana dozu au. Emen bada, baiña, beste zertxobait, oso berezia: olerkiaren arira etorri-naia, etorri-nai eza etenbarik gogora ekarriaz aitaturiko zati bakotxaren gai adigarri lez sarrast-urradura biak. Bietan dago, egon be, pentsamentu oldarkor jarduntsu bat-bera, eresi osoaren mamiña lez noizpenka bakarrik ber-esana. Lenengo zatian, gai gaillena *alargun* geratzea da, iru aldiz beintzat gogora ekarria. Bigarren zatian, andreak eskaturiko *otoitza*; gogai, idea ori lau bider agertzen da poema barruan.

Egikera au, barriro diñot, ezta ezbear eta eroankizunetakoa bakarrik, zerbait diran bertsolariak edozein gaitan dagiena baiño. Zergatik ete da? Guk albo-izkuntzetakoak ez lako arnasa ta egikera doguzalako, ala etorri ugariegia-ren bat-bateko gauzak eta gaiak ondo eratu eziñaren ondorio, bear bada? Baleiteke bigarren au be: uriol baten ez da errez zer guztiak artez erutzen.

Euskaldun bertsolariaren jokabide onetaz uste ta eritxi barriz agertzen yaku Jurki Oteitza, bere *Quousque tandem...!* liburuan. Euskal egikera edo estiloari datxikola, gure-gurea ta beiña dogula diño bertsolaria. Gogo bi, edesti bi, kultura bi ei doguz: bata barrukoa, geure-geurea, eta inguruko arima-lantzetik artua, bestea. Gure eritxiz azken au bakarrik bizi da, baiña onek ez diñosku dana, barrukoa be oraindik bizi da-ta; oni be begitu ta dagokiona emon bear dautsagu. Ezin daikegu geuganik aldendu. Euskal oiturak, euskal ertiak, euskaldun bertsolariak ezin daikeguz latin kulturari begira soilki epaitu ta adierazo; naitaez, geure-geure dogun barren-edestia, barren-arnasa berezia, arduraz begiratu ondoren, aintzat artu bearra dogu. Orduan gure azterketak egiazko ta onurakorrak izango dira, bestelan ez.

Ederrari eta gure egikera bereziaren inguru egin dogun txango luze samarra amaituz, gatozan orain gorago aitatu dogun gaiari, obeto, P. Lafitte jaunaren bi lanai ekitera. Egoki datoz, etorri be, oraiñetan ikuturiko auziarekin. Ikus dagigun, gaiñ-gaiñetik beintzat, gure olerti-egikera berezia-ren guna. Ortarako, P. Lafittek beiñola arrotu zituan gaiak, koblakariak erabili bear ebezan legeak, euren poesilanak ariltzerakoan noski, begi-mende jarri ta aztertuko ditugu.

Laburki: aren lege-idaztia aztertuko dogu batetik bat, eta azkenez berak, bere olerki-txorta biribiltzean, zelan jokatu eban.

I. EDER-LEGEAK EUSKAL POETIKAN

Ez da onetaz askorik idatzi. Aipagarri dira, alan be, P. Lafitte-ren «Koblakarien Legea», J. M. Leizaola-k «Euzkadi»-n eta Paris-ko «Euzko-Deya»-n eta «Estudios sobre la Poesía Vasca» liburuetan, eta nik «Gure Bertsolariak», II eta III-garren zatietan batez be, osaturiko orrialdeak.

P. Lafitte-ren poetika lanari gagokiozala, ez da suster barik buruturiko lana, zer lurrez ebillen ekiala egiña baiño. Mugaz andik eta emendik beti izan dira bertsolariak, eta oneik geienik eskola aundi bakoak izan yakuz, oraintsurarte. Ez da arritzekoa, beraz, eurak baiño geiago ekianari, euren ustez beñik-bein, bertso-gintzan nola jokatu bear eben itandutea. Neuk be, askotan, askatu bear izan ditut olakoen duda ta adi-matazak.

Gure idazlariari be, gaztetxo zala, egin izan eutsuezan olako itaunak. «Askotan galdegin daukate –diño– zerbait lege bazenetz koblakari berrien gidatzeko, ala zerutikako dohain batek behar zituenetz nolazpait argitu, berotu eta kantarazi.» Eta itaun orreri askapena emon nairik, laster asi yakun ikasten, irakurten eta aztertzen liburuak eta bertsolarien lanak; orretaz idatzirik ezer ez egoanez gero, berak osatuko eban itaunka joakozanai erantzun al izateko beste irakatsi tinko.

Ona nundik nora ibilli zan bertso-lege pillo bat osatzeko. «Gazte-an –diño– nihaurek bilhatu izan dut liburuetan bezala pertsulari zaharren solasetan ere; eta deus argirik ezin atxemanez, kantu ederreneri lotu naiz, heietan kausituko nuela, nehun kausitzekotz, nolako helbideak hartu behar diren neurthitz onesgarri zombaiten ontzeko». Ez eban bide txarra aukeratu, olan egiñak bait ditugu beste izkuntza guztietakoak be, poesiarri naiz beste edozein gairi buruzko legeak idoro, jaso ta sailkatzerakoan.

Leenen idazleak, edo-ta kasu onetan koblakariak, ezinbestekoa dau gaitasun aparta ortan jarduteko. «Bi hitzez erran diteke –idazten daukoblakari bati baitezpadako zaizkola jeinua eta jakitatea. Jeinua, jiteak ematen du, beraz Jainkoaren ganik heldu da. Jakitatea, parte jitetik, parte ikhastetik. Azken pundu hau baizik ez dugu hemen hunkituko: nehori ez dezakegu guk dohain berezirik eman; bainan xoilki zombait xehetasun, zombait konseilu xume, sortzetikako dohainen azkartzeko, laguntzeko eta ahalik hobekiena baliarazteko». Sortzetiko doaiak, izan be, azkartu, osotu ta erabilli bearra daukagu, idazleok batez be.

Egilleak damoskuzan xeetasunak eta konseiluak, puntu onei buruzkoak dira: a) *Geia*; b) *Mugak*; c) *Pertsua*; d) *Kobla*; e) *Mintzairia*, eta f) *Edergailuak*. Guk be, labur zurrian, gaiok txibatutako ditugu gain-giroki.

a) *Geia*

Lan bat osotzerakoan, zetara goazan eta zetan gabiltzan jakin bear da. Bidez doanak asmo berezi bat daroa, soloan azia ereiten dauanak, bardin.

Bertso-egilleak ortara orduko nundik eta zelan jakitea berezkoa dau. Bat-bateko bertsoan daragoionak askoz geiago, jente aurrean bere trebetasuna erre bear dau-ta.

Legeak ezagutu, ereduak ikasi ta arein antzera lan egiten saiatzea, bide egokiak dira norbere idazkera lortu ta idaz-arloan, gari-sail baten lez, oztopo barik aurrera egin al izateko. Edozein gaitan bezela ekiniez jaristen da erreztasuna. Alperrik ezagutuko doguz arte-arau guztiak eta eredurik onenak, idazten saiatu ezik. Bidari dira legeak, ikasbide ereduak; baiña ez da au, naikoa: aurrera jo bear da, egaz egin norbere egoakaz, koblari onak izatea nai ba dogu.

«Koblaka hasi baino lehen –diñosku Lafitte-k–, behar da geia hautatu. Ez da sekulan jiten dena jin abiatu behar, hartzen den bidea ezagutu gabe.» Ez artu, arren, norbere indarren gaiñetiko gairik, ezta idazlearen jeinuaz bat ez datorrenik be, ezta iñolaz be atsegin ez yakonik: ez dautso irudimenik kilikatuko, eta badaezpadako ondorenez iruzurra sartua izango da. Bat-bateko bertso-saioretan, txapelketa ta antzeko batzaldietan sarri, epai-maikoak edo ortarako izentatu batek jarritako gai ta puntuari jarraitu bearra izaten da. Ortik esan oi dogu, nunbait, gure bertsolariak –eta orobat poetak– asko oldoztu ta ausnartu bear dabela. Eder da, eup-ordua datorkenerako, gai asko ausnartz adimen-mandioa zer abestuz polito beterik eukitea.

Ez uste, gero, gai danak bardiñak diranik. Ona Lafitte-k bertatik lizun-zaleei diñotsena: «Gei guztiak ez dira berdin egoki. Badira gei lizun edo zikin batzu, eskualdun batek beti bazterrerat utziko dituenak, bere buruaz axola izpi bat balinbadu segurik. Badira bertze batzu biziki arruntak, aditzaleen gogo-bihotzak herrestan daramaztenak, sekulan hegal ukaldi betez goititu gabe. Primetan sari guti holako geiek». Beraz, gai biok, ots, lizunak eta arruntak, saiets izten alegindu bear gara, goi-maillako idazlaritzan parte artu nai badogu beintzat.

Koblakariak erria jaso bear bait dabe, gai jagi aratzak erabillia egoki ta eder yake; ezta lauegiak, entzuleen gogo-biotzai ezer ez diñotsenak, ez datoz ondo orreïn eztarrietan, ez lumetan. Loiak dan baiño loiago emon oi dau olakoagan. Lotsa ta gizalegea nainun eder. Gordinkeriz orbandutako bertso traketsak ardagela ta taberna-zuloetan txarto artuak ba dira, askotaz moztzago emon daroe erriaren aurrean esanak diranean: onelako jardunaldietan garaitasuna ta goi-egazkada leuna eskatzen dira, txalo ozenak irabazteko.

Ba-daukaguz gai batzuk –oba ez!– koblakariak sarri erabilten dabezanak. Lau batez be: Jaungoikoa, mundua, eriotza ta maitasuna. Ez da nik esana bakarrik. Laffite'k onela: «Eta erran diteke nolazpait sartzen ez diren kobla moltxo batek ez duela balio deusik. Ez dugu erraiten lauak sartu behar direla, ez; bainan bat ala bertzea. Horren eskasean, neurtitza murriz-murrizta dago, batere hedaturarik gabe, hertsu eta soil». Lau gai nagusiok, izan be, oso zabalak dituzu, berein ertzbeigi ta zeaztasun barreanean dabezalarik.

a) *Jaungoikoa*, egiaz, gai aberatsik aberatsena dogu, aztertu ta sakon-gaitzak baitira Aren tasun guztiak. Aren al-izatea, anditasuna, ontasuna, beti-izatea, zuzentasuna ta olango doe ta egokitasunak, lerrenak eginda be, ez doguz sekula naiko goratu ta ederretsi al izango. Artez Dabid erregeak: «Jaun, Jauna!, zure izena bai andi lur osoan!» (*Eres.*, 8,2).

b) *Mundua* bardin, sorburu jori bertsolarientzat. Goi ta bee, zenbat kantagai eder! Lurrean makiña bat mendi ta aran, zugatz eta landara, abere ta pizti, egazti ta txori: gizonak ortxe, gaur gogor biar leun, lanari lotu ta ekin bear. Or itxaso be, orain ezti, gero izukoi. Zeru azpia, barriz, zenbatu ezin alean izar ta izarkiz josia, gau ra egun zoragarri.

c) *Eriotza*, nok ukatuko? Jaio, bizi ta il, or gure zori. Lur gaiña eder yaku, egiaz; baita bizia be. Eriotzak, ostera, gure egin oi dau: bizia ito ta lurrak murriztu. Biotz lurkoientzat batez be, au bildurgarria da; ez ainbeste zeru-zaleentzat: zerua ederrago, lur-azala baiño. Eriotza, beraz, gure bizi-urratzailea, onek negartzen dau, arek goratzen.

d) *Maitasuna* da, azkenez, gizaldiak gizaldi geien kantatu dana. Maitasunak bai darabil oro goian eta beean. Zugatz bikaiña dogu, adar muskerrez jantzia: Jainko-maitasuna, etxe-maitasuna, erri-maitasuna, ezkongaien maitasuna, senar-emazteen maitasuna. Nainundik begitu, beti dogu eder maitasuna. Naiz negar-intzirika naiz irrikoi, aldioro da atsegingarri biotz-barreneko sugar orren kanta eztia.

Aspaldiko euskaldun kantariak ba ekien zer diran lau gaiok. P. Lafitte-k: «Koblakari xaharrek bazakiten lege hori: *Ura* ta *arinoa* goretsi behar zute-nean, berehala bataioaz eta mezaz oroitzen ziren, Jainkoaren ganat nahi baitzuten urbildu beren koblakaldea. *Gerlaz* mintzatzeko, herio beltza heldu zitzaienten ezpainetarat eta gerlariek etxen utzi esposaren amodioa. Eta zernahiren goresteko, ez ziozkatena munduko lili, xori eta izareri maileatzen bere iduripenak?».

Gaion barruan egokitu ziran gure bertsolari zaarrak. Iñoizka beste zerbaitera jo bear ta be, laster etozan ostera lege jakiñ onein barrutira. Bertso zaarretan pizkat murgilduaz, bertatik agiri da arein egilleen xalo-izate garbala.

b) Mugak

Benetan koblakari danak, ezer gitxi arazotuz, gogai ta iduriz neurtitzik bikaiñenak arilkatu oi dauskuz. Barne-legeari erantzuki, ezagun ditu edererak, ba-daki barne oartzen dauanaz entzule naiz irakurleen errai-zokoak zelan iñarrosi. Eta au be ba-daki: iñoiz bertsotan diarduala, aditzaileak zabar antzera ikusten baldin ba-dauz, beste bide bat artu daroa beingoan. Baita iñoiz gaiaren iturria agortu ba yako, ateraldi zorrotz batekin amaitzen dautzu saioa.

Entzun P. Lafitte-ri gai ontaz: «Geia hartuz geroz, behar da mugatu. Alde guzietarat luza baledi, jo harat, jo hunat, deus hautarik gabe, airerat eta

utserat, nehundik ere ez litake eder koblakaldea. Hoberena beraz xede edo mugen finkatzea, jakiteko nundik has, zertarik burura, eta nola antola arteko mami balios hura. Hastapenak munta handia du. Harek emaiten diozkate kobleri beren abiadura, usaina eta ozentasun berezia. Gaizki abiatu lasterkaria ez da aise heltzen; hala-hala makur hasi den neurtzilaria».

Amaiak be badau bere garrantzi sotilla. Egoki ta eraz asi ta bidez ondo ibiltea, beti dogu txalogarria; baiña eroso amaitzeak emoten dautso neurtitzari batez be olango jagitasun berebizikoa. Lafitte-k barrero be: «Azken hitzek ere hainitz erran nahi dute: ezen aditzaleen beharriek horiek dituzte hobekienik atxikitzen. Ontza laster eginik ere, ondar urhatsetan behaztopatzen den zoin-lehenkariak ez du so-egileen onesmenik ukaiten. Bazkarietan berdin, arno eta jateko bikainenak azkenik. Arteko koblak bi buruetakoeri emanak izan behar zaizkote: xapela eder, zapetak eder, eta soinekoak fildan, ez litake gisa». Aolku adigarriak.

Jente aurrean jokatu bear dauanak, ispillu antzo da-ta, aunitz gauzatan neurri zaindu bearra dau. Ez bei, ez, orban nakaitzik erakutsi; bebil beti orekan, asi ta amaitu, eder. Txairo izate onetan, iru gauzari batez be so-egin bear yake: gogaiari, iduriari ta biotz-ondoari, idazlearen lanak kanpotik ez-eze barrutik be mugak bear ditulako. Gogaiak, buruan sortu oi doguzan pentsamentuak, beitez argi aratzak. Gogaiak jazteko, barriz, idurikizunak erabilli oi doguz geienik; ez ditugu nastu bear, alan be, iduria ta gogaia: gogaia iturritik ura lez adimenetik dator, iduria asmamenetik, eta bakotxak bere kidekoa sortzen. Biotzondo edo sentimentuak, ostera, era askotara adierazo leikeguz. Gure lanak –bertso, neurtitz eta poesiak– atsegingarri izateko, neurri ta mugak zaindu bear dabez, eder-kerari, euskal ederkerari dagokiezanak guk, jakiña.

Lafitte-k: «Bertzalde kantuak ez luzegi molda: hein bat behar da orotan eta aditzailea ez da neholaz nakaiztu behar».

c) Pertsua

Bertsoa ez ei da naitaezkoa olerkian, baiña bai eder-esatea osotzen eta beteagotzen dauana. Bertsojeta da, beraz, poesiari dagokion izkera alagalako ta berezkoena, eta lirika saillean batez be nekez aurkituko dogu egiazko poesirik, neurkera bage. Bertsoak bear bada ez dira poesi izango, baiña bai beronen soñeko ñabar, dotore. «Olerkia bertsoagaitik da erregiña», iñoan espaiñar olerkari Zorrilla-k. Urez dabillen nakarezko gondola, egaz dagian belaxgara egoak.

Olerkariak, jantzi bikain orrez estaltzen ditu bere gogai ta esannaiak, ots, bertsoetan jarten dauz bere lan ederrak. Lerro-mordoska batek, ostera, neurkerarik asko artu daikez. Euskeran be, beste izkuntzetan lez, neurkera askotako bertsoak eta ahapaldiak ezagutzen dira. Eta, erromantzeai jarraituz, aokaldi edo silabaz, itz atalez dagigu guk be, oraiñarte beintzat, bertso

neurketa. Epea, aldia zan gerkarren eta latitarren artean bertsoen neurri-eredu; silabak esaten emon oi dan aldia aintzat artu eraien. Silaba astun luzea oguzteko, labur ariña esateko baiño birritan epe geiago irauten da; laburrak eta luzeak nastaurik, neurri-oiñak eratzen ziran eta oneik, alkarregaz korapilloturik bertsoa osotzen eben. Euskereak be baeban, itxura danez, olango zerbait leenago, baiña ez dakigu orain zelakoa zanik. Gaur-egun dazauguzan euskal atsotitz, kanta zaar eta olerki guztiak edo, geure birako erromantze antzera egiñak daukaguz, silaba izanik neurri-eredu, ain zuzen be.

Euskeraz, silaba batekotik amazortziraiñoko bertsoak ezagutzen doguz. Etena, erdiko geldiunea da, ta auxe bear dabe erdian bederatzi silabadunetik gorakoak, andik beerakoak ez, oitura danez. Bakarrik ez da erabilten silaba batekorik, bi, iru, lau ta olakoakaz nastean ezik; eta orduan be itz-joku bitxi besterik ez dira. Neurri aundiagoko bertsoakaz irauli oi dira geienetan, eta orduan bai, ederto datoz txikiok be. Bost, sei ta zazpi silabadunak aurkitzen doguz sarrien gure kanta aspaldikoetan.

Oihenart dogu nunbait neurtitz-eretan aukerarik aberatsena itxi euskuna. Taiu askotarikoak erabili zituan bere gartzaroa bertsoan matazatzean. Eta Orixe-k onela: «Ordudanik onera ez da ezer aundirik azaldu neurri kontu orretan. Detxepare'k, Oihenart'ek eta Adema-Zaldubi'k egin dituztenak irakurri ezkeru, gaiñerakoak ikusirik daudela esan diteke». Azken urteotan, alan be, neurtizkera barri ta egokirik ba-daurkigu gure olerkari ta bertsolari gazteetan, gizaldi onen bigarren amarraldian asita aurkitu be.

Bizkai aldean Enbeita'tar kepa (1878-1942), Muxika-ko «Urrentxindorra», bertsolari jori ta errikoia, izan zan orretan geien saiatu yakuna: sei-zazpi ta abar, zortziñakoakaz naste, ainbat olako itxi euskuzan. Zortziko nagusia naiz txikia, oso ezagunak eta oparo erabilliak ditugu, leen eta orain, emen eta mugaz andik. Nagusiak zortzi bertso edo piku ditu; lenengoak, irugarrenak, bostgarrenak eta zazpigarrenak amar silaba daukez eta beste laurak zortziña bakotxak; lenengo laurak beintzat etena daroe erdian. Txikia deritxoguna, barriz, zazpi ta sei silabakoz osotua da geienbat.

Oihenart-ek baditu bederatziñakoak, eta Enbeita-k amarnakoak. Amainakakoak etena bear dabe erdian, eta bitara izan daitekez, naiz sei ta bost, naiz bost eta sei. Amabiñakoak ez dira bertso itsusiak; Zaldubi-k batez be neurkera orretan biribildu zituen asko, eta Zaitegi-k bere «Tori nire edontzia». Bertso-mota oneitaz Orixe-k diño: «Amabinako auek oso ariñak dirudite, baiño auek ere egiz edo idurituz lau indar-mintzara edo azentu indardun ditute bertso bakoitzean, irugarren silaba'kal banatuak. Edo azentu indardunik ematen ez ba'zaie ere, dutelazko iduritua kentzea ez da erraz. Zaldien lau gaiña gogoratzen dute».

Amalaukoak zazpi ta zazpi nastean dira, K. Enbeita-k ederto erabilliak. Amabostekoak zortzi ta zazpi nastean, zortzi silabakoaren ondoren ixil-unea dabela. Orixe-k onela idatzi euskun bere «Getsemani» poema. Enbeita-k

taxutu zituan amaseiñakoak, zortzi ta zortzi, eta kanta-doiñu bi eukazan eurok abesteko. Bederatzikoa ta zortzikoa buztartuz gero, amazazpikoa burutzen da, bederatziz silabakoaren ostean etena egiñik. Eta, azkenez, amazortziñakoak be badabez Emeterio Arrese-k eta ondarribitar Satarka-k.

Onexek dira esukeraz daukaguzan neurkera arruntenak. Aldaketa eta nasterik naiko egin daikegu eurokaz eta ortik ahapaldi txairo ederrak sortu. Neurkera batzuk, jakiña danez, errezago dira kantatzeko, beste batzuk irakurtzeko. Au gogoan izan beti be. Entzun Orixe-ri gai ontaz. «Nere belarrientzat –diño–, erabat seinakoak, edo erabat zortzinakoak –bakarrik erabiltzekotan–, edo erabat zazpinakoak edo erabat amabinakoak, irakurgarri dira. Naste ere erabilli ditezke, baiño ez biz batean: batzuk aurrena, erabatekoak, eta gero bestekoak, jokera oso okerra ez ba'dute bata bestea-rengandik, edo alde askotakoak ez ba'dira. Ez det esan nai luzegoak edo laburragoak; oso berdiñezak izanda ere, joera bera edo ritmo bera izan bai dezakete. Lenengo bertsoa baiño bigarrena agokaldi batez motxagoa ba'da, kantatzeko artu ditekete zortzikoetan bezela: ez irakurtzeko. Zergatik ote? Erderazko indar-azentuak bi itzatal balio ditu bertso azkenean, edo bertso erdian, etenduna baldin ba'da. Euskeran ez da olakorik berez gertatzen, orain erdera antzera oiturik baldin ba'gaude ere. Itz-atal guziak berdiñak ditugu: iraute berdiña dute ta indar berdiña; gorabera edo tonua dute berdiñeza. Beaz, irakurtzeko, bertso silaba berdindunak egokiagoak dirala esan ditekete: neurria egiñagoa dutekela». Gai ontaz, beste zenbait gauza jakingarri daukazu nire «Gure Bertsolariak» liburuan, «Euskal Bertsolaritza» deritzon zatian baitipat.

Kantatzeko aireak be badau bere garrantzia. «Ez dira denak edozoin gauzentzat egoki –diñosku Lafitte-k–: heriotze bat ez ditake *Ai, ei, ai mutila-k* duen musika jauzikari hartan jenderi konda; ez-eta xakur baten odolgi-ohointza *Lurrarren pean* delako airearekin. Bakotxari berea. Aireak berak ponduak emaiten ditu. Huna nola diren gehienetan moldatzen. Arruntena euskaraz 13 pikoetakoa. Har dezagun konparazione: *Mendian zoin den eder eper zango gorri*. Bi zatitan ezarria da: lehenik 7 piko, geldialdi bat eta gero 6 piko... Ene ustez ponduak xuxen zatitzea eta izariaren (neurriaren) begiratzea da bertsuari doakon lanik baitezpadakoena. Gauza ederrak erranik ere, mainku-airean ateratzen badira, ez ditake prima (sari) handirik irabaz».

d) Kobla

Olerkiak barnean ez-ezik azalean be bear dau bere jantzi apaiña. Eta bertsoa geienbat ñabartzen dauana silaben eina, erdiko etena ta azken bardin-amaitze aberatsa esan daikegu. Esan dogunez, erdiko etena edo geldi-unea bearrezkoa da bederatziz silabadunetik gora. Orixe onan mintzatu zan beiñola: «Azentu indarduna, gutxi edo asko bearra da bertsoak neurzeko edo irakurtzeko, edo ori gabe nekez irakurri ditezke gure bi zortzikoak...

Tartean bear du bertsoak neurria, tartean». Azken silabetan bardin amaitzea be tarte bat besterik ez ei dogu, bertsoa askotan zatitu litekelako andik edo emendik. Baiña eten au geiegitan edo urregi edo bear ez dan lekuan egin ezkerro, ez yaku ain eder, belarriak bait dauskuz mintzen doiñu bardin samarrak dakarskun kalaka gogaitgarriak.

Bertsoaren azkenak oskidetza antzeko bardin amaia eskatzen dauala esan daikegu. Itz bardin jauste ori dabe azken bokal mintzordun edo doiñutik asita beñik-bein: euskeran azken bokal geienak daroe euren azentu berezia. Azken bardintze ori azken aurrekotik asita egin al bada, obeto. Adibidez: *baratza, garratza* ta abar; *biotza* ta *ogia*, ez letorkez ondo.

P. Lafitte-k onela: «Erran dugu nola neurritz edo pikoze berdindu behar diren pertsuak. Ez da aski. Pertsuak behar dira koblatu: pertsuen koblatzea edo -zonbaitek dioten bezala- doblatzea da heien berdin bururatzea.

*Gure mera xaharrak nigar onik ein du,
Bere xarpa maitea nabiz berriz bildu.*

Bi pertsu hoik koblatuak dira, biek *du* daukatelakotz azken pikoan. Kobladura guziak ez dira berdin aberats ez eta zilegi. Hitz bera ez ditake berarekin kobla. Horra zergatik kantu hunek eskas emaiten duen:

*Igante astelegun elgarrekin dire.
Lan eginaren arras adixkide dire.
Trufan eta musikan bertzez ari dire.*

Hiru *dire* horiek ez zaizkit eder batere. Holako neurritzek ez dukete nehoiz saririk hartze».

Kobla-legeok, orraitino, beste izkuntzetakoak lez guk be baztertu egin ditugula esan bear. Gaur beintzat ez dautsegu orrenbeste inportantzi ezarten. Eta Arana Goiri agertu yakun lenengo, euskal literaturan, azken bardin amaitze edo rima bagearen zale. «Doiñu-indar bardiña dabe silaba guztiak -diño-, eta bertsoak, eurenaz, azken silaban oskidetu ezkerro, naikoa dabe. Ortik bertso azkea edo zuria».

«Gaur batzuk ba-dira -idatzi neban nik aspaldi-, eritxi oni loturik antza, iñundiko zoztor barik, bertso ta olerkigintzan nasai asko diarduenak. Baita egia da, literatura askotan, neurkera berezi bat eredutzat artuta batez be, lan ederrak burutu dabezala. Barneko ritmuak, berau zer dan ez dakienak be, asko laguntzen daua diño. Baiña zer guztietan lez, zur jokatu bear da onetan be; bertso azke ta jarek orrek osotasun geiago eskatzen dau, enparau gaiari buruz kidetasun geiago, goxotasun geiago, bardin ez amaitze orrek izten dauan utsunea ornidu al izan dagian».

Eta itz betegarriak? Zer dira oneik? Erderaz *ripio* esaten yakenak. Edozein itz dozu betegarri, beste barik, naiz bertso bateri bear neurria

emoteko, naiz azken bardiña egoki amaitzeko, sartzen dan itza. Onelakoak dira bertsoetan agiri yakuzan ainbat itz, izen lagun, aditz-joku, toki izen eta asperen. Itz oneik: «bear bada», «noski», «alegia», «beraz», «ain», «oso», «txit», «guztiz», «bide batez» eta antzekoak, betegarri besterik ez dituzu. Naiz-ta erti-lana osotzerakoan izerdia bota, bertsogille antzetsuak laster ostendu oi dau jardun orren nekea. Erreztasun au, bertsogaieri buruz olerkariak dauan jabetza osotik sortua da.

e) Mintzairia

Zer da erti-teknika? Egillearen gaitasuna erti edo arte-gaiak erabilteko. Margolariak teknikaz jokutzen dauala esan oi dogu marrazkia ta koloreak zelan erabili dakianean: orreikin bait dau adierazten ederra. Idazle onak itza darabil ederraren adierazpena iragarteko. Itzaren jaun eta jabe izan bear dau, beraz, literaturari buruzko lan bikain bat osatzeko.

Olerkian itzaren jabe ez-ezik, itz aberatsaren jabe ere izan bear dau ele-eder idazlariak. Entzun P. Lafitte-ri. «Kobla ederren egiteko ez da aski –diño– geia eder izatea, pertsuak ongi eginak eta elgarri moldez koblatuak. Mintzairia gora atxiki behar du neurtitzlariak. Lehenik hitz apal kazkarrak utz ditzala bertzen dako; gauza zikinak ez ditu aipatuko, eta neholaz aipatu gabe ez baditu uzten ahal, polliki eta inguruka mintzatuko da hetaz:

*Igande iluntze batez etxe alde zoala,
Erroz gora erori zen Santsin zabal-zabala.
Izarrak nihon ez ditu ikusi han bezala.
Ilargia ferekatuz gan zen gan berehala.*

Izkera garbi-zalea dogu Lafitte. «Beraz mintzairia garbi ukan dezala koblakariak –diñosku–. Bai eta aberats. Hitz hainitz behar dira, elgarren betekoak, gauzen erraiteko: zeren pertsuaren izariak eta kobladurek ez dituzte nola nahikoak hartzen ahal: noiz nola, horra legea. Behin, *Lili bat ikusi dut* delakoaren airea harturik, koblakariak erranen du:

Aingeru baten pare duzu arpegia.

Hartu balu bertze aire bat, eman dezagun *Santsin*-ena, erranen zuen:

Aingeru batek bezala duzu begitartea.

Nasai jokatu bear dau olerkariak, gure Lizardi, Orixe, Lauaxeta ta orrein antzekoak lez. P. Lafitte-k: «Gogoia zalu eta hauu nasaia, ez da holakorik pertsulari on izateko. Bainan kasu! Eskuaraz ari den koblakaria ez dadila otoi frantseserat lerra, bere hizkuntza eder ustez:

*Orai deklaritzen dut mundu hunen bixtan;
Ez dut abandonatzen esperantza zutan;*

*Moiarik balinbadut bihar aratsean,
Bisita eginen dut zure kartierean.*

Eskuaraz erran zitakeien:

*Egun erraiten dautzut denen aitzinean,
Ez dutala etsitzen batere zu baitan.
Ahalik balinbadut bihar aratsean,
Aurkituko nizaitzu etxe-ingurutan.*

Eta au gaineratzen dau: «Ez dut uste hanbatekoak diren lau neurtitz xuxendu hauk; bederen-bederen eskuara gehixago badute. Dena ere on».

Itzen naste ta iraulketak be asko esan nai dau mintzairera eder bilakatzeko. Naste ori, osterera, ez daiteela suster bakoa izan, leuna ta gozoa baiño. Lafitte-k: «Bertzalde kasu egiteko litake hitzaldeak ahal bezain legun izan ditezten. Soinu bera maizegi edo hurbilegi aurkitzen delarik, gogor emaiten du, beharria nekaizten du. Huna bertsu zahar zombait. Erradazue ez dutenetz, funtsetik landa, truskil aire bat.

*Bihotz zaharrari etzaio ohartzen
Neskatila arin gogo gaztekoa;
Hari ari zaio begia argitzen,
Norbaiz baitu orai gazten artekoa.*

Ez dea irringarri hoinbertze *a a, a a, bait bait, hari ari* eta *gogoga* bitxiren kausitzea?

*Ez dut utzi^{ko} kobla huiien egitea
Erran gabe emazte hunen bertutea.
Nehork ez du ukatzen harekin dotea
Dela laster urtzeko irriskuz betea.*

Hemen ere baliteke erraitzeko hainitz: *ko ko, e e, u u* eta *er ur irri...* Eztitasun gehiago galdegiten dute behar bezalako neurtitzek».

Ba dakie, beraz, gure bertsolari eta poetak.

f) Edergailuak

Bein eta barriz esanda be, euskalduna eder-zale da, eta griña orrek bultz-eraginda ainbat eder-lanetan dogu nabarmen, oroz-gaiñeko; kera berezia naiko dau, ezin ukatu, bertso-gaietan. Ezkongai soñeko bikaiñez apaintzen yaku eztegu egunean. Egia da, euskeraz idatzi arren, erdel gogo arauz jokatu daikegu sarri, gure gogorapen eta iduriak erderatikoak izan daitekez, gure gogo-lantze edo kulturarik geiena erderatik jaso dago-ta. Gure euskerak, baiña, badau bere kera berezi-berezia.

Auzi onetan zerbait baiño geiago ekian Aitzol-ek onela idatzi eban, bere aldizkari eder *Yakintza*-n: «Euskalerrriak olerti gaietan ba-du bere ederkera, ba-du bere estetika. Olerkari izan baitzaizu euskalduna:jatorriz bai datorkio gure sorterriari olerkari izatea. Beraz, olerkari jatorra izanik, eder-zale ez-ezik edertasunari soegiten eta edertasuna erakusten ere ba-lezake. Eder ikuste eta erakuste onek berekin darama eder-oitura eta eder-legea sortzea. Nor bakoitzak bezela, erri osoaren atsemenak ere bere kerara jasotzen du edertasuna. Erri-atsemen tankera berezi auxe bere-berekoiei estetikaren iturburu da».

Inguruan dogun ederra ikusteak ba-dau garrantzirik poesi-lana egitean. Onela darrai Aitzol-ek: «Euskeldun erria edertzala izanik edertasun ori berari dagokion eran ikusi, eta bere irudimenak agintzen dion eran, iduri moltzoaz apainduta, agertzen du... Errikoi olerkiak, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz errikoiak maita izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maite-minduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoiak, eztai-jaiak, ezkontza arazoak, aurren azitzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kantagai artu dituanean, alako dotoretasun bikain batekin jantzita aurkeztu dizkigu».

Baiña galde azkenik: ingurumari dogun eder ori, edo-ta gure barneak sortzen dauan eder ori, nola adierazo bear dogu? Ez, ez ba dakigu, bide erdian zoko eginda geratu dan burdiaren pareko gara. Sua ta arnasa bear dira, azken batean, lanari itsatsiak, olerkia eder, atsegingarri, bipil gertatzeko.

P. Lafitte-k: «Koblak ederki eginak izaiten ahal dira, batere ukan gabe bihotza johan daukun su edo hats berezi hura. Hats hori, jeinuak edo jiteak emaiten du; su hori, odolak pizten. Halere badira ederbide batzu denek baliatzekoak, ahal denean segurik. Bata da koblaren azken pertsuari zirtoaren eratxikitzea. Aditzalea dilindan daukazu ondar ponduraino. Aiduru dago, zertarat deramazun; eta bozkarioa jauzten zaio, bet-betan agertzen zaiolarik uste gabeko ateraldi pollita, edo ditxo irringarria. Etsenpluak kantu zahar guzietan badira:

*Xoriñoak kaiolan
Tristerik du kantatzen:
Duelarik ban zer jan, zer edan,
Kanpoa du desiratzen,
Zeren, zeren
Libertatia zoinen eder den...*

Beste erri-bertso onetan be laster agertzen da burutapenaren ederra.

*Amodioa zoin den zoroalmondu guziak badaki;
Nik maitaño bat izaki-etalbeste batek eramaki;
Jainko maiteak gerta dezalalenekin baino hobeki!*

Iduripenak asko edertzen dau oler-lana. P. Lafitte-k: «Bertze ederbide bat da pertsuen argitzea eta piztea, itzuli berri edo iduripen batzueri esker.

*Haltzak ez du bihotzik,
Ez gaztanberak ezurrik,
Enian uste erraiten ziela
Aitonon semek gezurrik...*

Ala:

*Uri ondotik hosto-pean
Ikaran dago gaixo lantxurda...
Haize gaixtoak ematean,
Lobi beltzerat eror beldur da;
Maitea, zutaz oroitzean,
Beldur bera dut bihotzean:
Garbia zare, bai behatzu
Lohirat eror, zuk aingeru...*

Eta bukatuz, ots-aundiko: «Iduripenak jaunzten eta airatzen dute kobla-kaldea, gogoetak hedatzen dituztelakotz geiaz haratago eta, alegia deus ez, hunkika bezala berriz hartaritzen, nekadurarik gabe eta, erran behar bada, atseginekin ere gehienetan».

Azken-azkenik, ordea, maltzur irriño ezpan-ertz dauala: «Segur gira astiki ar liteken neurtizlariak, denbora poxi bat emanez luma-lanari, eta gero kantuari trebatuz, kobla ederrik egin lezakeela. Agian Elizanburuk, Otxaldek, Zaldubik, Martinek eta bertze koblakari handiek ondokoak izanen dituzte!».

Eta nik: Liburu xarmanta P. Lafitte-k aspaldi eman euskuna.

II. P. LAFITTE, OLERKARI

Ertz askotatik begiratuta aipatua izan da P. Lafitte. Ez ainbeste, nire ustez, olerkari bezela. Eta, alan be, gaztetan beintzat, olerkigintzari emona ibilli yakun, musak gerora orren maite izan ezpa-ditu be. Ogeta amaika urteko zala, kantu liburu bat eskiñi euskun, orduko kritikariak txalotu ebena: izan be, gaztetan osatzen ei dira, poesi-barrutian beñik-bein, lanik onenak. Egia ete?.

Dana dala, P. Lafitte-k «Ithurralden kantuak» poesi-txorta argitaratu eban, 1932-garren urtean. Garai aretako idazleak goratu eben alkarren leian, Lauaxeta-k «Euzkadi»-n eta Aitzol-ek «Yakintza»-n baitik bat. Aitzol-ek onela: «Amenísimo y original librito de veintiseis poesías. Estas poesías laburtanas traen aires de renovación. Nada hay en ellas de arcaico. La imaginación del poeta, en ellas, más que fecunda, que lo es, se manifiesta,

sobre todo, invocadora y penetrante. Las imágenes y símiles son de una vida intensa. Bajo el pseudónimo de Ithurralde, que a lo que presumimos es el segundo apellido del prologista, se trata de ocultar al gran impulsor de las letras euskeldunes en Laburdi, nuestro querido amigo el abate Pierre Lafitte».

Niri be olantxe iruditu yatan «Milla euskal olerki eder» bilduma osotu nebanean, idazti giar, txanbelin ortatik bederatzi aukeratu bait nebazan. Beraz, irakurle, liburu ortan daukazuz: «Aingeru eta arima», «Uhainen dantza», «Ur-xirripa inhar batekin guduan», «Haur hilaren arreba eta ama», «Itsasturi gaztea», «Afrikanoaren leloa», «Makila», «Xaubadin», eta «Dupaginak». Emendik ikusi daikegunez, gai bereziak aukeratu zituan oso bere poesi-baratzerako.

«Ithurralde beti kantuz» deritxon itzaurrean, onela itauntzen dautso bere buruari: «Nor da bada Ithurralde hori? Gizon gazte bat, hogoita hameka urte, itsaso axala bezain aldakorra. Itsasoa egun jabal, bihar hasarre; egun irriz iguzki ederrari, bihar ekaitz nahasiari ilun eta hits. Nere laguna berdin: orai dena irri eta bitxikeria, sarri dena otoitz eta liburu, gero begi-ñiña bezain minbera eta nigarti; batean kongregazioneko neskatxa bezain herabe, bertzean ozarraren ozarrez buhamia ahantzarazten. Bainan, dela atsegin ala atsegabe, uri ala ateri, beti kantuz gure gizona; iduri eta kantu horrek bozkarioa luzatzen dio, eta ordu txarretako kiretša ezitzen».

Zelan bere, onakoxea izan oi da egiazko olerkaria: artega ta urduri. Gaur ez yaku ain eder bare-bare datorren ibai nausia, aldatz-beera bolbolka ta. uxubilo datorkiguna baiño. Gizona zelakoa, alakoa dogu ba Iturralde-k eskintzen daukun liburu. «Bera bezalakoa da -diño- egun eskaintzen daukun liburu xumea: dena kantu; eta kobla batzuetarik bertzetara nolako aldakuntza! Segur ez dute iduri iturburu beretik sortuak direla, nahiz guziek erakusten duten egiazko euskalzale baten nahikari suharra. Hanbat hobe!...»

Eta ondoren, Etxepare-k bezela, mundura bialtzen dau bere idaztia. «Eta orai -diosku-, habil, hoa, liburutto! Hel hadi Euskal-Herriko lau bazterretarat. Gure gaztek har eta irakur hezatela supazter xokoan, eta suko ilhaun arinekin batean hegaldita ditezela zeru-alde heien xaramela ozen bezain garbiak».

OGEITA BOST OLERKI BIKAIN

Jakin dagizun, irakurle, zelako poeta dogun P. Lafitte, ta goza zaitezcan beronen lanak irakurriz asti-unetan zagozanean, eta esku mende olerki-lanok, emen damotzut euron mamiña bederen. Ogeita bost dituzu guztiz.

I. *Zorionketaria*. «Lurraren pean...» lez abesteko. Zortziko nausia. Olerkaria, bizia leen lili ebal, erritik doa, zerbaiten billa. Etxean itzi dau oro: gazte-lagun, dantza, ondasun... Ames-gaiñezka biotza, zoriona nai dauku;

baña, goiz naiz arrats, jo eguzki aldera eta jo ipar aldera, igaro ibai ederrak, iun urdin gain ibilli, ez agertzen ames egiña. Gora so, ta zeruan bakarrik, uste dau, zorion betea. Bost ahapaldi amar pikoko, eder-eder landuak.

II. *Ur xirripa inhar batekin guduan.* «Lili bat ikusi dut...» airez kantatzeko. Amaika ahapaldi lau pikoko, 7/6. Aritz sendo zaar bat, muiño ertzean; ura erretenez doa aren oiñetarik, «zilar piru bihurri baten idurian». Ostotsua da, gerizpe zabala dau edatzen ingurumari; eguzkiak berak be ezin dau bialdu bere sugar gaitza. Baiña inhar-izpi bat adar-gunetik zuzen igaro da, eta or, ur eta inhar arteko burruka polita, luzarokoa nunbait. Eta olerkariak: «Gudua ederra zen, bainan zen alferrik: / urak ezin zezaken hil inhar-argirik, / ez eta argi horrek agor ur xortarik. / Ederki egin dute elgar berezirik». Gizonetan be ori jazoten sarri. Oba ixil-ixilla norbere alde joan.

III. *Itsasturi gaztea.* Iru ahapaldi lau bertsoko iru errepikaz. Itxasontziz doa semea, ama kaian negarrez itxirik. «Otoi, ama, ez nigarrik egin!», diñotsa semeak. Baiña, ur aunditan joiala, ekatxa biztu zan bat-batean, eta itxastarrak ondatu. Gazteak, alan be, itotean, onela: «Otoi, ama, ez nigarrik egin» Leun-leun egiña.

IV. *Haur hilaren arreba eta ama.* Bederatzi ahapaldi lau puntuko, 7/6. «Lili bat ikusi dut...» lez abesteko au be. Ume illaren arrebak amari itaun dagio zer daukan bere nebak: kanta ta kanta diardu aren kuma ondoan, eta ez dautso ezer erantzuten, «gure Battittak deus eztu erraiten». Eta amak: «Maddalen, ikusi dun joan den egunean, /pinpirin-arroltze bat zur horren gainean,/ kuxkua hor utzirik apexa beha zan,/ hegaldaka johaki ederrik airean». Orrelaxe Battittak be, gorputza beian itxi ta zerura egaz.

V. *Xaubadin.* Sei estrofako zortziko nausia. «Lurraren pean» lez abesteko egiña. Neskatz illa da Xaubadin; danak dagoz negarrez, eliza txikiko ezkila, auenez. Eortzera daroe. Ba-eban gizon-geia, miñez urtuten galditu dana. Olerkariak onela dau pintatzen aren iduria: «Arzaintsa-jauntziz emani-kako /aingeruño bat iduri/, etxe landetan ikus zitaken /goxo bezain maitagarri:/ ez dako uraz bertzerik /nehoiz eman larruari!/. Mirailtzat ere erreka zuen, /zilarezkorik ez nahi... / Edergailutzat aski zitzaizkon/ pentzesasiko bi lili!»

VI. *Bizkaiburuko Xemartin.* Kanta-airea: «Nere maitea, barda nun zinen...» Amairu ahapaldi lau, zortziko nausi. Xemartin-ek, uda astean, lore bat idoro eban, bidean gorde-gordea. Alkarri irri egiñez, maite mindu ziran. Nexkak amari esaten dautsa nor dauan maite. Amak ezetz, Xemartin txiroa dala. Nexkak ori iragarten dautso maiteari, eta arkaitz zulo batean, alan be, alkarri zin-egiten dautsoe betiko maitasuna. Baiña, arkaitz-zulo ori itxas-alboan zalako, uin eskerga batek biak itoten dauz. Gai polita, eta ondo arildua.

VII. *Larresoro.* Zortzi ahapaldi, 9/8. «Adieu, cher Larresore» lez abestu leiteke. Larresoroko seminarioa ospetsu zan, baiña gobernuak ostu ebanean,

apaiz gaiak Ahurti-n, beneditarrak itxitako komentuan batu ziran. Gerra amaitu zanean, uste eben, itzuliko eutsoela ikastetxe ori, baiña, bai zera! Euskaldunak seminario barria eraiki bear izan eben Ustaritze-n. Ortaz eskea egiteko, kopla oneik argitaratu ebazan P. Lafitte-k Baiona-ko «Eskualdunean».

VIII. *Milesker*. Lau ahapaldi, 10/8-ko; amar silabakoak ez dabe etenik. Bilbao-ko Gazteiz jaun euskaltzaleak Ustaritze-ko Seminario txikiari egin eutson emoitiz jori bat, euskera ondo ikasiko eben mutiko gazteen lanak sariztuteko. Eskerrak emonez, ontzen ditu egilleak estrofa oneik. Besteak lez, zentzunez eta mamñez ederto orniduak agiri dira.

IX. *Aita Lhande onari*. «Jakintsunaren airean», diño P. Lafitte-k. Baiona-n jαιο zan Aita Lhande Hegi, jesuitea, baiña zuberotartzat eukan bere burua, an Zalgiz-en, bere amatxiren jauregian egotaldi aundiak egin ez-ezik, euskeraz be berton ikasi ebalako. Euskeraz eta frantseraz, idazle ernea ba zan be, izlari bezela etzan erne-ezago. Tolosa-ko ikasketxean maisu ta Paris-en izlari lan bikaiña egin eban bere bizitzan. Itzaldi askoren artean, Foch jenerala goratuz be ez eban mintzaldi makala emon. Auxe aipatzen dau batez be Lafitte-k olerki onetan.

X. *Itsas-aldetik...* Bost ahapaldi sei puntuko, 7/6. Leon León apaizari, Ustaritze-n luzaro erretore izanari eskeiña. Arek *Imitazionea* argitarazi ebanean egindako neurtitzak. Onela diño irugarren ahapaldia bukatzean: «Etsai bat sortu zaiok Satan zaharrari». Kempis-en liburuxka, izan be, arma zorrotza da deabruaren aurka. «Ifernuko lehoina doala morturat, hasarrez, orrobiaz, nigar egiterat».

XI. *San Frantses Xabierekoaren besoa iraganen deneko*. «O Josep, zein handia den» airean abesteko. 1922'ko udan egiña. Munduan ainbat mesede egiñiko besoa, eta konta-ezin ala miragarri. Irugarren ahapaldiak onela: «San Frantses, zure besoak /ongi hainitz egin du:/ zirimolan itsasoak /keini batez jabaldu;/ argitu ereitsuak, /asko maingu xuxendu.../ Kristoren mirakuluak oro berriz zabaldu...» Neurtzeko 8/7 neurria darabil.

XII. *Hilen othoitza*. Sei ahapaldi, lau pikoko, 8/7. «Zer dire gure egunak» bezela kantatzeko. «Kantikak» eta olako eliz-liburuetan datozen goratzarre ospetsuen antzera, pekatariak Jainkoari egiñiko eskari beroa. Eder asko abesten: «Burua itzul ezazu nere hogenetarik, /bertzenaz nik beharko dut ihes egin zutarik./ Ezen, nork ikus dezake zure begitarterik, /ezpadu lehenik ukan zure barkamendurik?»

XIII. *Jesus Haurraren Theresa Sainduari*. Lau ahapaldi sei pikodun, neurri ezardiñekoak. Santa ospe ta entzute aundikoa orduan eta gaur-egun. Lora azpian sarri aurkitzen dogu elorria be. Eta olerkariak: «Iguzu indarrrik aski /jasan dezagun sainduki/ gaitz guzien zauria».

XIV. *Tolosa pagano*. Zorzi ahapaldi lau bertsoko, 8/7. «Xorittua, norat hua...» airean abesteko. An ikasten zegoela, olerkaria, liburuz asetua, uritik

iges joan da oianerantz. Bedarrean etzun da, eta olerkiak buru-muiñean. Tolosa dakus urriñera, «buztin gorritz orratua» larrosea diruri, baiña «lore gutidun arrosa, arrantzez aberatsa!» Ibaia doako erditik. Odeietan doaz gurutzeak gora-gora. «Eliza pollit hoietan bada zer nahi saildu». Olerkariak azken intziria: «Tolosa, hiri gaixoa, ez ahantz hire Ama».

XV. *Xori-txiuka*. Zortzi ahapaldi sei bertsoko, neurri ezbardiñetan. «Nere maitea, barda nun zinen ...» lez abesteko. Arerioz beterik dagon txoritxuaren otoitza ta antsiak. Etsaia dau arrano beltza, eta orain bera gorderik aurkitzen dan sasi-ertzean or gorderik, bera il naita, eiztaria... Ahapaldi arin gozoak!

XVI. *Nere makila*. Bederatzi ahapaldi lau bertsoko, 7/6. «Ostiraletan duzu Garruzen merkatu...» airean abesteko. Ona lenengo estrofa, giar antolatua: «Begiztatua nuen aspaldi mendian /mizpir ondo xuxen bat sasien erdian./ «Handitzerat utzi dut eta harrekila / aurten egin dut nere... eskualdun makila». Eta arrezkero, edonoiz, astegun eta jai-egun mendira doa makila arturik. Luze bizi ondoren be, obian bego bere euskaldun makila; Jainkoaren aukitik ur be, lerden ibilliko da, eskuan euskaldun makila.

XVII. *Kafettoa Semenarioan*. Bost ahapaldi lau pikoko, 8/7. «Xorittua, nurat hua» lez abesteko. Apaizgaiak be ez dagoz beti lo edo ikasten. Akeita artzen be ba-dakie. Edaria tentagarri izan. Olerkariak bigarren ahapaldian onela: «Edariak su gaintetik irakituz darasa:/ «Errak, mutiko gaztea, otoi, ez hadi lotsa. /Ez nauk xuri itxuratik, bainan badakik ontsa/ eskoletan ikasirik: *nigra sum sed formosa...*» Eta apaizgaiak, ikas-bitartean, edari baltzetik pizkat zurruputzen.

XVIII. *Pip eta thu*. Sei ahapaldi lau pikoko, 7/6. «Ene maite pollita» lez abesteko. Liburu andaba bat dauko mai gainean, baita zaarrak be, «Job» deritxona bat. Liburu orri osteak atera ta atzamar puntan biurturik, oso barregarri darabiz.

XIX. *Sudur-luze*. Lau estrofa zortzi piko ezbardiñeko, 7/6. «Bidarraitarra» airez abesteko. Oso ederto margozten dau surra, ule, zulo ta mendiñoz edertua. Gizasemeen eta abereen sudurrak zeatzen ditu.

XX. *Nere xorteko laguneri*. Zazpi ahapaldi bost pikoko, 7/6. «Antton eta Madalen» airean abesteko. Naiz-ta neurri luzez, ariña iduritzen yaku irakurtean. «Karrosan firurika joan ginen herritik, /oihuz, irrintzinaka, kantatuz goizetik.../ Lili-xingol, bandera edo zoin aldetik. /Pettiriren xirula boz bere xokotik./ Mundua harritua zagoen urrundik». Gudarako balio daben ala ez, aztertu dabez... Bata manku, bestea oker... Onuntzakoan, aruntzakoan baizen alai.

XXI. *Saski-egillea*. Amar ahapaldi lau pikodun, 7/6. «Lili bat ikusi dut» airean kantatzeko. Zaran-egille bat daukagu atari ondoan, eta bere lanari diarduala atari-aurretik doazen neskatillai begiak ezarten; onein artean dau

maiteño bat, Gaxuxa. Onek ez dautso maite dauenez esaten, baiña onentzako ari da lanean, onen eskuetan izan daitezcan otzara ta saski, onen narru zuria kilika dagien emeki. Pentsamentu ederrez ornidutako bertsoz osotua.

XXII. *Gilen*. Sei ahapaldi lau pikoko, 7/6. «Mendian zoin den eder» airean kantatzeko. Alkar-izketa giarra. Maiteak Jana Mari-ri jausteko zuru-biak ekarri dautsoz, eta Akiz-era eroan nai dau. Baiña maitearen gelara sartu dalarik, gizon bi idoro ditu bertan, eta «bi beharri muturrak diozkate moztu». Gilen-ek Akiz-era bakarrik biurtu bear izan dau.

XXIII. *Dupaginak*. Asierako errepika eta zortzi ahapaldi bost pikoko, 7/6. Amaika dupagin ari dira lantegian pan, pan, pin, pan! Nagusiak irri gitxi, langilleak pozik, aste guztien dabe zeregin. Izerdia jori... «Arnoa, hemen gaindi, maite hugu, maite!» diño. Mota onetako beste edozein izkuntz-bertsokin pare jarteko erakoa, noski.

XXIV. *Bizarduna eta bizargabea*. Amasei ahapaldi zortzi pikodun, 10/8. «Ollande gazte, moko fier bat» bezela abesteko. Zirtolari trebe biren autua, bertsolari zorrotz antzera bakotxak berea egozten dau: bizarraren obariak eta itsusiak argi dabilta emen darda gaiñean. Irakur au: «Ez dut ikusten zer den pollitik, /sudur azpitik bi buztan.../ Legun-legunik begitartea nahiago dut miletan./ Ageriago baitut holaxe /irriñoa ezpainetan/ eta larrua gorri-freskorik/ nere hezur mateletan». Irrikopla bipila.

XXV. *Eguno moda*. Zazpi ahapaldi bost bertsoko, 8/7. «Xorittua, norat hua» airez kantatzeko. Onek be barre-bertsoak, guztiz gatz eta pipertsu moldatuak. Leen kriolinaz egiten zan irri, «orain zangotarik hasiz zoin bitxi andreak!» Neskatzak ez dira gizentzen, gerri meea nai dabe, maian ez dabe «fitsik» jaten. Gaurko moda zan orduan be nagusi. Matraillak zuritzen dabez, ezpanak gorritzen... Gonak goregi, «urbil belaun mokotik». «Hotz batean bizi dire –diño–. Jainko Jauna! zer planta!» Uda neguak aldizka dabilta lez, bardintsu modak be.

Onetxek dozuz, irakurle, P. Lafitte-k egiñiko olerkiak. Ez asko, baiña olerkari –eta ez eskasa– dogula esateko beste bai nunbait. Era askotakoak osotu euskuzan, baiña irrira jotzen dau beti be. Geure jit eta izatean daroagu ori, eta Lafitte be, izatez dogu «trufari» zorrotz. Olerkariak bear dau doai ori.